

Herri programa proposamena  
**2019**

---

# Herri osasuntsu eta ikasia

**ehbildu**



## **Aurkibidea**

<b>1.</b> Kultura .....	05
<b>2.</b> Kirola .....	11
<b>3.</b> Laikotasuna .....	17
<b>4.</b> Hezkuntza .....	21
<b>5.</b> Osasuna .....	23



# Kultura

## Diagnostikoa, kokapena

EH BILDUKook kulturadun emakume eta gizonez osatutako herria nahi dugu, herritar sortzaile, kritiko, burujabe eta librez osatutakoa eta sinetsita gaude kultura helburu hori lortzeko bitarteko paregabea dela.

Kultura eskubide unibertsala da, pertsona orori bermatu beharrekoa. Bai eta herri orori ere. Kultura pertsonaren garapen integralerako ezinbestekoa da eta horrenbestez, herri baten ongizatearen parte. Eta kohesiorako zein integratzailearen tresna naturala, hurrengo urteotako erronka izango dena, migrazioak, elkarbizitza eta aldaketa sozialak nagusi izango diren testuinguruan.

Lehenik eta behin, EH BILDUK urte luzetan Euskal Herrian kulturagintzan ari diren emakume eta gizonen lana goraipatu nahi du eta era berean, kultur eragile guzti horien bozgorailu eta bidelagun izan nahi du.

Bat egiten dugu XXI. Mendearen hasieratik ehunka da kultur eragilek hainbat gogoeta bilgunetan adostu duten kultur sorkuntzaren egungo egoeraren diagnostikoarekin. Bat egiten dugu gogoeta foro horietan kulturak bizi duen egoera hobetzeko proposatu dituzten neurriekin eta horiei, EH BILDUK lege gure ekarpenak egin gura dizkiegu.

EH BILDUKoon aburuz, Euskal Herrian kulturarentzako estrategikoa zer den kultur sistema osatzen dugun eragile guztion artean eztabaidatu, adostu eta gauzatu behar dugu.

Datozen urteotako kultur politikak ekosistema osatzen dugunon artean diseinatzeko bilguneak sortu behar ditugula uste dugu. Bilgune horietan herri honetan kulturagintzan ari diren eragile guztiek izan beharko lukete parte hartzeko aukera, inor baztertu gabe.

Euskal herritar orok bere herriaren historia, ohitura eta kultura ezagutu eta sakontzeko eskubidea du; era berean, eskubide osoa du beste herrialdeetako kulturak ezagutu eta bereganatzeko. Kultura,

hizkuntza, hezkuntza eta beste zenbait eskubideren moduan, herri eskubide kolektiboa izateaz gain, pertsona bakoitzak duen eskubide indibiduala ere bada. Beraz herritarrei auzo-herritik hasiz Euskal Herri mailan sorturiko kulturaren jabe eta partaide izatea zor diegu.

EH Bilduk Euskal Herriak bizi duen aniztasun kulturala aldarrikatzen du, ekosistema bizi gisa. Kulturak egunerokoan osatzen eta eguneratzen doazen egitura sozialak diren neurrian, inguruarekin harremanduta eta inguruarekin solaskidetzan ulertzen ditugu. Horren baitan, euskal kultura eta euskarazko kultura ditugu aniztasun guzti horren kohesionatzaile eta ardatz.

Halaber, kultura gizarte eraldatzaile ere badela uste dugu. Izan ere, kulturaren bidez jendartea eraiki eta eraldatu egiten da balio ezberdinen sustapenaren bidez. Horien artean bereziki azpimarratzen ditugu: feminismoa, aniztasuna, elkartasuna, internazionalismoa, ekologismoa, parte-hartzea, etb.

Kultura, entretenimendu edo aisialdi soila baina askoz gehiago da; kultura gizarte baten garapenerako ezinbesteko elementu bat da; herri baten oinarri sinbolikoa elikatzen duen lehengaia.

Gizarte batean kultura mota ezberdinak elkar bizi dira, baina ezinbestekoa izan behar da guztiak lotu, kohesionatu, aglutinatuko dituen bat izatea; herri honen bizinahia elikatuko duena; kasu honetan, euskal kultura ekarriko genuke lehen plano horretara.

## Helburu orokorra

Gaur egungo kultur politikaren protagonista jendarte anitz eta orotariko agentez osaturikoak (kultur kolektiboaren subjektu) behar du izan. Kultura partekatu bat behar dugu, sorkuntza prestigiatuko duen politika bat, lanpostuak sortuko dituen eta daudenak mantentzen lagunduko duena, ekoizpen kultur propioaren bitartez sortze eta ekoizpen prozesuetan bizitasuna txertatuko duena.

Komunitatearen eraikuntzaren prozesu gisa ulertua, barne aniztasuna errespetatuko duen kultura, euskal kultura eta euskara indartzeko eta biziberritzeko giltza izango duena, aniztasuna oinarri izango duena, elkartrukera zabalik egingo dena, geruza, adin, genero, jatorri...guztiek sarbidea izango dutena.

Herritarren autoeraketa eta enpoderamendua bilatuko duen kultur ereduaren alde egiten dugu; herritarrak sortzaile eta parte hartzaile izango dituen. Horretarako auzolana oinarri izango duen herritik sortutako eta herriarentzako kultura bultzatuko dugu, administrazioa laguntzaile izango delarik.

Kultur kudeaketaren gobernantza demokratikoa eta ekimen autogestionatuen garapena bateragarri izango dituen kultur politika bat, finean.

### ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

#### 1.- Kultura partizipatiboa sustatzea

- Sektoreko protagonistak (administrazioa, enpresak, sortzaileak) elkartuko dituzten mahai sektorialak sortzea. Liburuaren mahaia (liburu-saltzaileak, liburuzainak, argitaletxeak), arte plastikoaren mahaia (artistak, akademiak, galeriak), musikaren mahaia (kontserbatorioak, musika-aretoak, sustapen-etxeak), arte eszenikoaren mahaia, eta abar.
- Lurraldeko/udalerriko kultura-zentroyen kudeaketa partizipatiboa edo ko-kudeaketa kultura-ekimenekin, auzo-elkarteekin, sortzaileekin eta abarrekin, gune publikoen enpresa-kudeaketa pribatua saihestuta.
- Autokudeketako oinarria duten proiektuak lehenestea laguntza publikoak ematean.
- Neurriak hartzea autokudeatutako guneak sustatzeko, hala nola lokalen lagapena eta entseguko lokal publikoak sortzea talde artistikoentzat.
- Lokal horiek guztiak batuko dituen lurraldeko autokudeatutako kultura-zentroyen sarea sortzea, haien eskaerei erantzun ahalko diona, eta zehazki gune handi bat sortzea kultura garaikide eta alternatiboari irekitako kultura-zentro gisa, baita diziplina artistiko eta kultura-kolektiboari zabal-dutakoa ere.

- Kultura libre sartzeari laguntza jaso dezaketen kultura-proiektuen balorazio-irizpideen artean (proiektuetan software libre erabiltzea, erabilitako lizentziak, eduki libreak sortzea eta abar).
- Udalerri kultur batzorde partehartzaileak, udalerriko kultur eragileak, taldeak eta era guztietako sortzaileak (antzerki taldeak, idazleak, dantza taldeak, arte ederretakoak, etab) parte hartzeko aukera izan dezaten.

## 2.- Euskarazko kultura-sorkuntza sustatzea eta babestea

- Babes publikoa administrazioen aldetik euskarari eta euskal kulturari, lehenetsuz sustatzearen bidez eta kontzientziazio-kanpainen bidez.
- Euskarazko proiektuak balioestea eta lehenestea edozein kultura-laguntzako motatan.
- Euskaraz sortutako kultura kontsumitzeari bideratutako kanpainak.
- Hobari fiskalak euskara hutsez ekoizten diren lanentzat (antzerkia, literatura, etab).

## 3.- Kultura inbertsio eta garapen sozioekonomikoko motor gisa

- Kulturari pairarazten zaion murrizketa geometrikoa gelditzea. Murrizketak geldiaraztea kulturari bideratutako aurrekontuan eta kulturarako baliabideak aztertzea baliabide horiek arrazionalizatzeko.
- Kulturarako sarbidea bermatzea sektore pobretuenei kultura-arloan prestatzeko, parte hartzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten, hala nola langabeei, gazteei, erretirodunei, eta abarri.
- Administrazio guztien erabateko babesa kulturari oro har eta lurraldeko/hiriko kultura-adierazpideei bereziki.
- Lurraldean/hirian dauden industria eta kultura-ekimen guztiei zuzendutako laguntza jarraituak sortzea, industria horiek "enplegu-sorgune" bat izan baitaitezke.

## 4. Ondarearen kontserbazioa eta defentsa

- Gure hiri- eta landa-arloko arkitektura tradizionalen eraikinen errolda edota mapak egitea, haien kontserbazio-egoera balioetsita eta ondare horren narriatze-prozesuak aurrera jarrai dezala saihestuz.
- Kontzientziazio-kanpaina bat egitea lurralde osoan, gure arkitektura-ondarea balioesteko, zaintzeko eta kontserbatzeko, aholkularitzarekin eta laguntza instituzionalekin batera.



- Gure kultura-ondare immateriala biltzeko eta kontserbatzeko azterlanak eta ekimenak bultzatzea eta babestea.

### 5. Kultura feminismitik

- Emakume sortzaileek egindako lanak kultura-sorkuntzak erakustera bideratutako gune fisiko eta digitalaren % 50 har dezala bermatzea.
- Emakumeek egindako lan sortzaileek ere gizonek egindako lan sortzaileek duten denbora bera, presentzia bera, garrantzi bera, eta oihartzun eta hedadura bera izan dezatela bermatzea.
- Euskal kultura-sorkuntzaren historia osoan emakumeek egindako sorkuntzak ahanzturatik ateratzea, eta garrantzi berezia ematea gaur egungo emakume sortzaileek egindako obrei.



# Kirola

## Diagnóstico, situación

Hego Euskal Herriko 10 herritarretik 7 sedentario dira, eta jendartearen %40aren mugikortasun premiak ez dira oso aintzakotzat hartuak izaten kirol-politiken garapenean. Gainera, kirola ez dago krisi sistemikotik salbu; bere garapena kirol-egitura eta jardueretan zentratuta egiten du; eta ez kirolari eta pertsonak ardatz hartuta.

Tokiko udal gobernanzatik autonomikoetaraino, kirolaren administrazioa, zerbitzuak eskainiz gartu da. Alegia, herritarrentzat herritarrekin kontatu gabe garatu da kirol-politika. Kirolaren kontzepzio motza du administrazioak, eta ondorioz, ez dago herritar aktiboen ikuspegiak ekar eta erakar dezakeen kudeaketa mota berri eta berritzailearen antzurik ikusten.

Eraldaketa piztu, puztu eta poztu behar dugu. Balioen berreskuraketarekin hasi behar dugu. Eta EH Bilduk indartu, lehen lerroan jarri nahi dituen baloreen artean, aurkitzen da: AKTIBOA. Pertsona aktiboa, ekimena duena, aldarte bizikoa eta bere jardutean bizipozez diharduena. Baina, aktibo izateko modu nagusietako bat fisikoki aktiboa izatea behar du.

Gure marko politiko -ideologiko berrian pertsonak, herritarrak, denak bere berariazko ezaugarri eta desberdintasun guztiekin, bere indibidualtasunaren osotasunean hartu behar ditugu. Horretarako, bide bakarra da gure ohiko bizitza ohituretan jarduera fisikoa txertatzea.

Kirola, jarduera fisikoa, bizitza aktiboa, eta abarrek zehaztaperen kontzeptuala behar dute. Kirolaren ikuspegi zabala proposatzen dugu. Jarduera fisikoa gure bizitzetan txertatzea proposatzen dugunean giza-mugimenduaren adierazpen guztiak hartzen ditugu: Arraunean entrenatzen den kirolaria, kiroldegira igeri egiten doan herritarra, bizikletaz lanera doan langilea, egunero paseatzera irten dena edota aisialdirako baratza duena. Guretzat, denak izango dira helburu, denak izango dira baleko.

Nazio eraikuntzan eta estatu berri baten urratsetan, nabarmen, une batetan, erabaki beharko dugu, zintzo eta leial, eguneroko tristurak eta gabeziak gure selekzioaren arrakastekin mozkortuta ase nahi

ditugun, ala; herritar aktibo izanda dakarkigun bizipoz mugagabetik joan nahiko dugun. Kirola soilik modu eksklusibo eta mugatuan politizatuko dugun; ala, pertsonak ardatza hartuta, gure buruak aktibatuko ditugun. Aukera gure esku dago.

Gure ustetan, garaia da, pertsonak kudeaketaren ardatz eta kudeatzaile bilakatzeko. Pertsona denak, beren berariazko premiekin. Biztanleriaren ezaugarri motore, sensorial, sozio-ekonomiko zein kulturalak anitzak dira.

Kirol politika berriak aniztasunaren tratamendu berezi eta berezitua behar du txertatu. Horretarako, gure lan filosofian eta moldean aldatu behar dugu. Administrazio maila guztietan, eta tokian tokiko dagoen kirol organoaz haratago, sail guztien jardunean txertatu behar da mugimenduaren aldeko kultura irizpide bateratua eta integrala. Alor guztietan aktibatu behar dira estrategiak herritarrek bizitza aktibo batean murgiltzeko topatzen dituzten oztopoak identifikatu eta hura gainditzeko baliabideak emateko. Azken finean, kirola eskubide bilakatu nahi dugu.

# Helburu orokorra

Kirol kontzeptu mugatu batetik mugitzen den gizarte aktibo bat sustatzera pasatzea dugu xede. Giza-kiaren baitan dago mugitzea eta gure asmoa herritar aktibo, eraldatzaile, emantzipatzaile eta kritikoak sustatzea bada, gure kirol politika bide horretatik joatea baino ez du, eta kirola gizarte eraldaketarako oso aintzat hartu behar dugun tresna da, herritarrak atxikitze, hunkitze, erakartzeko, inplikatzeko eta eraldatzeko duen gaitasunagatik. Eta Euskal Herriko izaeran eta kulturaren duen pixuagatik.

## ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

### 1. Ekitate-irizpideak sustatzea kirolean eta bizitza aktiboan

- Genero-berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako kudeaketa-ereduak ezartzea lurraldean/hirian diharduten kirol-erakundeetan, eta lankidetzak-hitzarmen bidezko harremana dagoen erakundeetan.
- Sailarteko mahai bat sortzea bizimodu aktiborako. Lankidetzak-dinamika bat eta baterako lanerako estrategia bat ezartzea lurraldeko/udalerriko sail guztien artean.
- Debekuaren aurrean, kirol-jarduerak arautzea gune naturaletan.
- Auditoria energetikoa kirol-instalazioetan.
- Lan-ildo bat martxan jartzea kirol-eskola hobetzeko eta bateratzeko.
- Esku-hartze berehalakoa eta urgentea behar duten kirol modalitate guztiekin hitzarmenak sinatzea. "Garena eraikitzen laguntzen diguten" eta hil edo biziko egoeran dauden kirolak dira: euskal pilota, herri-kirola, arrauna, txirrindularitza, eta abar.
- Beharrezkoak diren egokitzapenak sartzeko kirol-lehiaketetan premia fisiko zein psikologiko bereziak dituzten pertsonen lehiaketa horietan parte hartzeko aukera izan dezaten.
- Egungo emakumezkoen esparrua sendotzea eta gehitzea, erabateko berdintasuna helburutzat hartuta baliabide material eta ekonomikoei dagokienez.
- Kontzientziakzio-kanpaina ez sexistak eta genero-kontzientziakzio-kanpainak egitea.
- Emakumezkoen jarduerak fisiko, kirol eta txapelketak babestu, koordinatu, sustatu eta bultzatzea, informazio- eta sentsibilizakzio-kanpainen bidez.

- Emakumezkoen esparruan jarduera fisikoa eta kirol-jarduera ezagutaraztea, emakumezkoen kirol-erreferentzia ere sortzeko.
- Hirugarren adinari zuzendutako jarduera fisikoak indartzea eta gehitzea, biztanleriaren talde hori etengabe handitzen ari baita.
- Osasun-zentrotik jarduera fisikoa sustatzeko estrategia prebentibo, moderatu eta osasungarria sustatzea hirugarren adineko biztanleriaren talde horretarako.

## 2. Kirola eskola-kirolaren elementu sozial aglutinatzaile gisa bultzatzea

- Sentsibilizazio-kanpainak antolatzea berdintasuna eta lankidetzaren sustatzeko eskola- eta kirol-esparruan.
- Kirol-jarduera inklusiboak eskaintzea, eskola-orduko eta eskola-ordutik kanpoko helburuak pedagogikoak izatea, eta balio eta ikuspegi berak partekatzen dituztela bermatuta.
- Kirol anitzeko praktika bultzatzea, presio lehiakorra saihestuta, mutilak eta neskek nahastuta eta kultura-aniztasuna kontuan izanda.
- Eskola-arloko kirol-instalazio publikoak hobetzea.
- Administrazioaren, federazioen, klubuen, elkarten, ikastetxeen eta Ikasleen Gurasoen Elkarten arteko hitzarmenak sustatzea kirol modalitate desberdinak sartzeko eskolaz kanpoko jardueren bidez (curriculumean sartzea).

## 3. Instalazioak eta azpiegiturak hobetzea

- Udaleko kirol-instalazioak hobetzea eta erabilera publikoko guneak gaitzea.
- Zerbitzuak, pertsonala, materiala eta instalazioak bateratzea zerbitzu zabal bat eskaintzeko mankomunitatetik eta udaletatik.
- Auzotar guztiei sarbidea erraztea gune publiko zein pribatuetara (azken kasu horretan, erakunde pribatuekin edo erdipribatuekin lotutako akordioen politika baten barruan).
- Babesa oinarrizko kirolari eta udal- eta eskola-kirolari, instalazioen erabilera erraztuz.
- Familia-kontziliazioko tresnak martxan jartzea kirol-instalazioetan (ludotekak, familiarekin bateragarriak diren jarduera eta ordutegiak, besteak beste).

- Kirol-instalazioak zaintzeko eta mantentzeko plan bat lantzea, kirol-praktika segurua ziurtatzen duena eta praktika hori etorkizunean mantentzen lagunduko duena.
- Lankidetzak akordioak sustatzea kirol-instalazioen kudeatzaile publiko edota pribatuen artean, doako instalazioaren lagapena trukatzeko edo prezio eskuragarrietan eskolen eta beste kirol-jardueren ezarpena beren gain hartzearen truke, giza baliabide eta baliabide material nahikoekin.





## Laikotasuna

### Diagnostikoa, kokapena

Laikotasunak hego Euskal Herriko proiektu juridiko eta politikoaren parte izan behar du. Hau horrela, laikotasunak kontzientzia askatasuna, eskubideen parekidetasuna eta politika publikoen unibertsaltasuna ditu oinarri.

Laikotasuna ezinbestekoa da edozein jendarte guztiz demokratikoa eraikiteko, eta administrazio publikoen lana da bide horretan aritzea. Era berean, lurralde laiko bat einbestekoa da giza eskubideen benetako bermea emateko. Oso bereziki sexu-eskubideei eta emakumeen eskubideei dagokionean; jendarte eta instituzio laiko batek eta ez bestek, bermatu baitezake askatasunaren, berdintasunaren eta aniztasunaren errespetua.

Laikotasunak erakunde publikoak eta erlijio ororekin lotutako jardunak bereizten ditu, erlijioa pertsonen esparru pribatura, partikularrera edo kolektibora mugatuz. Eta beraz, administrazio publikoen zeregina da pertsonak erlijioekiko duten jarrera askea errespetatu eta bermatzea, eta esparru pribatuan gauzatzen den jardunak irizpide demokratikoak gauzatzen dituela bermatzea.

Erakunde publikoen eta konfesio erlijioso desberdinen arteko desberdintasuna ezinbestekoa da. Horrela, erlijioa esparru pribatura mugatu beharra dago, erakundeek jendarte zibilaren interesak babes-tuko dituelarik sinestunen interes partikularren gainerik.

# Helburu orokorra

Sistema laikoa oinarri, jendarte zibilaren interes orokorrak sinestunen interes partikularren gainetik ezarri dira.

Horrela, erlijio jarduna ez da jendarte osoarengan onura duen zerbitzu publikotzat jotzen.

## ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

### 1. Laikotasuna, kohesio sozial eta herritar guztien interesen babes gisa

- Sinbolismo erlijiosoa kendu egingo da eraikin eta izaera publikoko ekitaldi guztietatik.
- Ordezkapen publikoko aldian, ez da parte hartuko izaera erlijiosoko ekitaldietan.
- Ez dira aplikatuko biraoari eta sentimendu erlijiosoen aurka erasotzen duten delituei dagozkien Zigor Kodeko 522. artikulutik 525. artikulura artekoak. Heriotza duinari buruzko 143. artikulua ere ez da aplikatuko.
- Laikotasunagatiko klausulak aplikatuko dira deialdi publikoetan eta diru-laguntzetan.

### 2. Berdintasuna bermatzea legearen aurrean

- Neurriak aktibatzea konfesio erlijiosoei zuzenean edo zeharka bideratutako diru-laguntza publikoak desagerrarazteko.
- Ez da titulartasun publikoko lurrik lagako ikastetxe erlijiosoak eraikitzeke, ezta mota horretako jarduerak egiteko ere.
- Diru publikoekin zaharberritutako interes kultural edo historikoko ondare erlijiosoa helburu publikoekin erabiliko da, jasotako diru-laguntza publikoaren arabera.
- Urteko erregistro publiko bat sortuko da, eliza katolikoaren esku dagoen ondare historiko-artistikoari buruzkoa.
- Eliza katolikoaren esku dagoen interes orokorreko ondarea desamortizatzeari hasiera emango zaio, onura publikoko ondare izan dadin.
- Eliza katolikoak jasotako zerga-salbuespenak kentzea sustatuko du ogasunak.

- Neurriak aktibatzea 1946-2015 aldiko urteei dagokien atzeraeraginezko immatrikulazioa kentzeko, eta hori ez errepikatzeko bitartekoak ezartzea.
- Edozein konfesio erlijiosoren aurrean apostatazko aukera bermatuko da.
- Protokoloen aplikazioa sustatuko da erritu zibilak egiteko.
- Elizaren barruan sexu-indarkeriaren edo pederastiaren biktima izan diren pertsonen laguntzeko bitartekoak ezarriko dira.
- Hilerriei izaera zibila emateko neurriak hartuko dira.



# Hezkuntza

## Diagnostikoa, kokapena

Euskal hezkuntza Espainiar Estatuaren menpe dagoen hezkuntza da. Madrilen hartzen dira gure hezkuntzari dagozkion erabakirik inportanteenak eta ez dugu eskuduntza osorik. Madrilek helburu ideologiko eta politikoekin hezkuntzaren birzentralizazio prozesuari ekin zion LOMCEren aplikazioarekin. Gainera, murrizketak aplikatu eta ditugun eskuduntza urriak erabat zapaldu dizkigute.

Hezkuntza eskumenenetatik harago, auzo, herri eta eskualdetan badugu zer eginik, ikastetxeen erai-kinetatik hasi, zentroek inguru hurbilenarekin duten harreman-ereduetatik pasa (proiektu linguistiko eta soziokulturalak, eskolaz kanpoko jarduerak, hezkuntza komunitatea eta herriko eragile zein herri-tarrekiko hartu-emanak eta abarrak) eta herriko hezkuntza proiektuetaraino.

Hezkuntza herri osoaren ardura da. Hezkuntzak jendarte osoaren inplikazioa behar du berebiziko garrantzia baitu pertsonen eta auzo/herri baten garapenean. Hori dela eta hezkuntzak lehentasun soziala izan behar du, hezkuntzaren bitartez jendarte inklusibo, kohesionatu, anitz, solidario eta askea lortuko baitugu.

## Helburu orokorra

Hezkuntza euskal herritar ororen eskubide indibidual zein kolektiboa da. Horregatik, euskal herritarren garapen integrala eta Euskal Herriaren garapen kolektiboaren zerbitzuan egongo den hezkuntza sistema burujabea garatzea da gure helburua: euskalduna, hezkidetzalea, inklusiboa, parte hartzailea, laikoa, herritarra, parte hartzailea eta publikoa.

Hezkuntzak jendarte ikasiaz osatutako Euskal Herria kultu eta ekintzailea eraikitzeko balio behar du. Hau honela, ezinbestean, hezkuntzan ere burujabetza osoa lortzeko politikak erdietsiko ditugu.

Horretarako, ikastetxea herriko gune aktibo eta eraldatzaile gisa ulertzen dugu. Hori dela eta, 'herri hezitzaileak' eraikitzea dugu helburu. Herri hezitzaileak bermatuko baitu gertuko hezkuntza, kalitatezkoa, anitza, inklusiboa eta parte hartzailea. Finean, herri osasuntsu eta ikasia.

### ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

#### 1. Hezkuntzagunea ikasgelatik haratago zabaltzea

- Eskola-jantokietan lankidetzabultzatzea tokiko produzitzaileekin, sukalde propioak sustatuta, elikagai-subiranotasunaren bidean pausoak ematea ahalbidetzen baitute.
- Landa-eskolen bereizitasunak aitortu eta tratatzea administrazioaren barruan, eta esparru berriak sortzea eskola horien ezaugarriak kontuan izanda.
- Lankidetzabultzatzea eskola-unibertsuaren eta udalerrian dauden elkarrekin artean, elkarguneak eta trukeguneak sustatuz, eskola-orduetatik kanpo jolasguneak erabiltzeko aukera barne.
- Eskola-ibilbideak babestu eta sustatzea.

## Osasuna

### Diagnostikoa, kokapena

Osasuna pertsona guztiei norbanako gisa dagokien eskubidea da, baita kolektibo gisa dagokigun eskubidea ere. Horregatik, kalitatezko Osasun sistema publiko, unibertsala eta ekitatiboa beharrezkoa dugu.

Sistema hori indartu eta bermatu nahi dugu Euskal Autonomi Erkidegoan, bertako herritarrek direlako ardatza eta lehentasuna.

Hori dela eta, mentalitatea, kultur aldaketa bultzatzea dugu xede, oinarriko zerbitzuetan sustapen eta prebentzio politiketan beharrezkoa den inbertsio eginez.

Horrez gain, gure beste zeregin bat izan behar da, Osasun sistema publikoaren egunerokotasunean diharduten eragile, ordezkari sozial, arduradun politiko eta herritarren arteko elkarriketa, elkarlana bultzatzea, parte hartzea irekitzea, adostasunak bilatzeko.

Osasuna izanik gure gizartearen bitarteko kohesionatzaile handiena, bere funtzionamendu egokia ahalbidetu nahi dugu.

Ez da gure asmoa erabaki medikoak hartzea edo eta osasun profesionalen paperean jartzea; ez dugu horretarako eskumenik herri eta eskualdeetan. Dena den, profesionalek, pazienteekin partekatuta ahalik eta erabakirik hoberenak har ditzaten, bitartekorik hoberenak eta behar bestekoak ahalbidetza da gure xedea. Azken batean, beraien lana ahalik eta hobekien egin dezaten erraztu nahi dugu; izan ere gizartea eta hori osatzen duten pertsonen osasuna haien eskuetan baitago maila handi batean.

EH Bilduren lan moldea elkarrizketa, adostasunen bilatzean eta akordioetan oinarrituko da. Jarraikortasunaren bidetik, etorkizunera begiratuko duten urrats esanguratsuak emanez.

## Helburu orokorra

Egiazki ikuspegi integrala eta komunitarioa txertatzea dugu helburu, arreta asistentzial soila gainditzeko, eta herriak, eskualdeak, agente aktibo bilakatzeko gure bizilagunen osasuna bermatzeko.

Ondorioz, osasun politikak gainerako politiketan ezartzea planteatzen dugu, gainerako sail eta erakundeekin elkarlanean herritarren eskutik eta parte hartzearekin.

Gure helburua gizartearen osasun egoera hobetzea delako, herritar guztiek ahalik eta urte osasuntsu gehien bizi daitezen, mendekotasunik gabe; eta desberdintasunak gutxitzea, hobekien eta okerren daudenen artean arrazoi sozio-ekonomikoengatik, generoagatik, etniarengatik eta abarrengatik.

### ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

#### 1. Osasunaren ikuspegi komunitarioa landu

- Osasun Saileko teknikariek eta Osakidetza profesionalen gure herriko edo eskualdeko egoera aztertu. Azterketa hau egiteko orduan, eragile ezberdinekin harremana sendotu tokiko sare bat osatuz.
  - Nola eragiten du osasunean langabeziak? Nola eragiten du bakardadeak? Nola etxebizitzaren arazoak?
  - Sortutako sarea eta diagnostikoa erabiliz, komunitatea ahalbidetu bere osasunarekiko dagoen ardura maila hartu ahal izateko tresnak emanaz.
  - Herriko eragileekin osasun egoera aztertuko duen sarea sortu
  - Sare hau oinarri hartuz, osasun egoera hobetuko duen auzolana bultzatu
  - Herrian bakardade egoera bizi dezaketen pertsonen azterketa egin eta auzolanaren bidez zuzentzeko moduak landu
  - Herrian langabezia egoera bizi dezaketen pertsonen azterketa egin eta auzolanaren bidez zuzentzeko moduak landu



- Herrian lan baldintza txarrak bizi ditzaketen pertsonen azterketa egin eta auzolanaren bidez zuzentzeko moduak landu
- Herrian genero indarkeria bizi dezaketen pertsonen azterketa egin eta auzolanaren bidez zuzentzeko moduak landu
- Herrian pobrezia egoera bizi dezaketen pertsonen, bereziki haurren, azterketa egin eta auzolanaren bidez zuzentzeko moduak landu
- Herrian etxebizitzaren egoera zein den aztertu eta beharra duenari lortzen lagundu
- Herrian kulturalki integrazio eza bizi dezaketen pertsonen azterketa egin eta auzolanaren bidez zuzentzeko moduak landu
- Herrian patologia psikiatrikoa izan dezaketen pertsonen azterketa egin eta auzolanaren bidez laguntzeko moduak landu
- Herriko uraren kalitatea ziurtatzeko neurriak hartu
- Herriko airearen kalitatea ziurtatzeko neurriak hartu
- Herrian eta eskualdean elikagai osasuntsuak ekoitzeko bideak sortu eta hauen kontsumoa bultzatu.
- Herritarren osasunean eragin dezaketen produktu kimikoak mugatzeko neurriak bultzatu
- Herrian kultura fisiko osasuntsua lantzeko erraztasunak eman
- Herritarrak bere osasunaren sustapena nola egin dezaketen ezagutu dezaten prestakuntza antolatu.
- Herrian haur guztiek hezkuntza egoki bat izan dezaten neurriak bultzatu

## 2. Tokiko ESIetako gizarte kontseiluetan parte aktiboa hartu

- Asistentziara mugatu gabe, sustapena eta prebentzioari eman beharreko garrantzia ematen zaiela ziurtatu.
  - Osasunerako heziketa programak bultzatzea
  - Preskribatu Bizitza Osasungarria (PBO) programan lankidetzatza bultzatzea
- Asistentzia egokia eman ahal izateko nahikoa baliabide badagoela ziurtatzea
- Baliabide hauek publikoak direla ziurtatzea eta hala ez badira hauen publikazioaren aldeko lana egitea
- Baliabide hauen arteko integrazio maila egokia dela ziurtatzea
- Asistentzia gaixoaren hizkuntza errespetatuz emango dela ziurtatzea
- ESIak dirua modu egokian erabiltzen duela ziurtatzea
- Hobekuntza arloak proposatzea eta hauek gauzatzen direla ziurtatzea

- Herritarren arreta normalizatua (behar duen hizkuntzan) eman dadin neurriak bultzatu
- Herrian bihotz-geldialdien artan Osakidetzako zerbitzuei laguntza emango dien sarea bultzatu
- Herritarrek beraien osasunean ardua handiagoa izan dezaten ahaldundu
- Herrian dauden zerbitzu pribatuen azterketa egin eta publiko bihur daitezen neurriak bultzatu
- Iktusa izan duten gaixoei laguntza emango dien auzolana bultzatu
  - Patologia kronikoa duten gaixo ahulak, ospitalera joan beharrik izan gabe, arta etxean jaso dezaten neurriak bultzatu
  - Miokardio infartua izan duten gaixoen errehabilitazioa errazteko neurriak bultzatu: kiroldegian laguntza, ibiltzeko zirkuitu ziurrak, ...
  - Zainketa aringarriak behar dituzten gaixoei, Osakidetzarekin batera, zainketa hau ziurtatuko duen sarea bultzatu
  - Lehen arreta herritarrengana iritsi dadin eta herrian gehiago integra dadin lana egin
  - Herritar ahaldunduek, depreskripzioaren aldeko apustua egin dezaten Osakidetzarekin batera lan egin

### 3. Tokiko ESietako komisio soziosanitarioetan parte aktiboa hartuz

- Esparru soziosanitarioaren koordinazio egokia ematen dela ziurtatu
- Lortzen diren emaitzen analisia egin eta hobekuntzak proposatu
  - Udaleko langile sozialen eta Osakidetzako profesionalen arteko integrazio erreal landu
  - Ahal den neurrian, zerbitzu sozialak sendotzeko pausuak eman
  - Osakidetzarekin batera, zerbitzu sozialen lana aztertu eta hobekuntzak ezarri.





**ehbildu**